


EUSKARAREN HISTORIA

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da. Mendeetan zehar hainbat herri eta kulturen inbasio eta etorrerari aurre egin behar izan die: Indoeuropar herriak iristean (duela 6000-3.000 urte), erromatarrak iristean gero eta ondoren herri germaniarren zabalkundeari.

Hala ere, hizkuntza gutxitua da, mendeetan zehar bigarren mailan utzia. Pirinio mendien bi aldeetan hitz egiten da eta 900.000 hiztun inguru ditu. Beste 100.000 euskal herritar ere Euskal Herrikan kanpo bizi dira, batez ere Espainian, Frantzian eta Amerika osoan.


Euskal Herriko zazpi lurraldeek 3.142.000 biztanle zituzten 2018. urtean, eta biztanleen %28 inguru euskaldunak ziren.

Euskararen jatorria misterio bat da; botere politiko eta administrazio autonomo baten laguntzarik gabe mendeetan iraun ahal izatea ere bada misterioa, hizkuntza zahar gehienak desagertu diren bitartean, euskarak iraun egin baitu. Era berean, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetatik aurrera, klase politikoak eta elite ekonomikoak euskara baztertzea erabaki zuten, latina, gaztelera eta frantsesaren mesederako, eta aldi luze bat ireki zen non hainbat alditan hizkuntza baztertua, mespretxatua eta debekatua ere izango den.



Gaur egungo **euskararen mugak** ez ziren garai bateko berdinak. Euskararen aztarnak aurkitu dira: iparaldean Akitania osoan Bordeleraino; ekialdean, Huesca eta Andorraino; hegoaldean Errioxa guztian, Sorian eta Burgosen. Eremita zabal hauetan euskarak presentzia izan du garai ezberdinetan; toki-izenak gelditu dira batez ere, leku batzuetan ugariagoak besteetan baino. Aztarna hauek hainbat toki-izenetan ageri dira Burgosetik hasi eta Bordeleraino.


Oraingoz ez zaio ahaidetasunik aurkitu munduko gainerako hizkuntzekin; termino zientifikoetan, hizkuntza isolatua deitzen zaio. Horrek ez du esan nahi beste hizkuntzekin harremanik izan ez duenik, euskara mendez mende egon baita etengabe beste hizkuntza batzuekin harremanetan. Harreman horietatik geratzen zaizkigu hizkuntza-maileguak, batez ere lexikoan: iberotik, latinetik, zelten hizkuntzetatik, arabieratik, gaztelaniatik, gaur egun ingelesetik. Horrexegatik esan izan da, hain zuzen ere, euskararen misterioa ez dela bere jatorria soilik, baizik eta mendeetan zehar irautea lortu duela. Izan ere euskarak beste hizkuntzen eragina jaso eta euskarara egokitzen jakin izan du.



Euskarari ez zaio jatorri bereko familiarik aurkitu gaur-gaurkoz, eta, horren ondorioz, hainbat teoria sortu dira hizkuntza jatorriari buruz. Baina teoria horiek sinesgarritasuna galduz joan dira eta euskararen jatorria ezezaguna da oraindik. Gaur egun, euskararen hizkuntzalaritza historikoan adituak direnen hipotesirik onartuena da milaka urtez hitz egin dela euskaraz Pirinioen bi aldeetan.

Ezagutzen ditugun hizkuntzetatik, Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa dela euskara esaten da. Gaur egun Europan hitz egiten diren ia hizkuntza guztiak (erromanikoak, germaniarrak, zeltak, eslavoak...) indoeuropar jatorrikoak dira, hau da, Europako Ekialdetik eta Asiatik, duela 6000-3.000 urte iritsi ziren hizkuntzen ondorengoak. Indoeuropar hizkuntza horiek aurreko hizkuntza guztiak xurgatu zituzten eta bost hizkuntza besterik ez zuten iraun: finlandiera(suomiera), samiera, estoniera, hungariera eta euskara.

Milaka urte geroago, latinaren hedapenari aurre egin zion hizkuntza bakarra euskara izan zen; izan ere, garai hartako zenbait hizkuntza, hala nola zeltak, iberiarra..., latinak ordezkatu zituen, eta gero hizkuntza erromantzeek. Beraz, Europa zaharretik geratzen zaizkigun hizkuntza gutxietako bat da euskara, eta Europako aditu askok interes berezia dute hura ikertzeko, haren ikerketatik Europako historia hobeto ezagutzea espero baitute, Indoeuropar aurreko Europaren historia hain zuzen.



Beste hizkuntza batzuen aldean, euskara oso berandu hasi zen idazten. Gaztelania, frantsesa eta katalanaren aurreneko testu idatziak X. mendekoak dira eta euskarak, aldiz, XVI. mendera arte ez zuen testu idatzi luzerik izan. Eskarazko lehen liburu inprimatua, *Lingua Vasconum Primitae*, Lapurdiko Bernart Etxeparek idatzi zuen 1545ean. Bigarren liburua eta Hego Euskal Herriko lehena beraz, Larrea herriko Joan Perez de Lazarraga arabarrak idatzi zuen 1565 inguruan, beraz, Etxepare eta Lazarraga garai bereko euskal idazleak izan ziren.

Euskal Herriko erakundeetan hizkuntza erromanikoak garrantzitsuagoak izan dira beti, euskara bera baino. Euskara biztanlegoaren gehiengoak hitz egin arren eremu familiarra eta folklorikora baztertu zuten. Elite politiko, kultural eta ekonomikoak beren interesen arabera jokatu zuten eta euskara hizkuntza ez kultu gisa hartu zuten.

Azken urteotan, estandarra (batua) sortzeak, euskarazko hedabideak sortzeak eta hezkuntza arautuan ofizialki sartzak (1982. urtetik) aurrerapauso handia eman diote hizkuntzari, ezagutzan eta prestigioan; baina erabilera ez da neurri berean handitu, beraz, hizkuntza sustatzeko eta erabiltzeko politikak indartu egin beharko dira, edozein hizkuntzari dagozkion gizarte-funtzio guztiak berreskura ditzan.

Araban euskaraz betidanik hitz egin da, bertako toki-izenek, aztarna arkeologiko eta historian eman diren lekukotasunek halaxe adierazten baitute. Erdi Aroan Gasteizen euskaraz egiten zela badakigu, beste arrazoi batzuek gain, garai hartako hainbat bidaiarik testigantza hori eman zutelako. Esaterako, 1572an Battista Venturino italiar bidaiaria Gasteiztik pasa eta honela utzi zuen idatzita: *“En Vitoria el pueblo llano habla bizkaíno o vascongado (euskeraz), el cual es muy difícil de aprender, pero la nobleza habla muy bien el castellano”* Beraz ikusten da jende xeheak euskaraz soilik zekien eta jende aberatsa elebiduna zen, baina bazekiten euskaraz ere.

XVII. mendean arabar gehienek ez zekiten gazteleraz, XVIII. mendean, berriz, euskararen beherakada handiena izan zela zioen Landazuri historialariak. Bere ustez hori azaltzeko arrazoi sendoenetako bat 1798an honela idatzita utzi zuen:

“ el haber entrado curas párrocos en los pueblos de Alava personas que ignoraban este idioma, o que no hacían aprecio y caso de usar de él, pues si en los púlpitos hubieran explicado la doctrina cristiana conforme lo hicieron sus antecesores y no en castellano, se hubiera conservado este idioma”.

Egia da, baita, Arabako zenbait tokitan euskararen aztarnak oso urriak direla. Pentsatzen da leku horietan euskaraz gain hizkuntza zeltak ere hitz egiten zirela erromatar aroaren aurretik, eta ondoren, latina nagusitzen joan zela. Arabako mendebaldea, Burgos aldea, Errioxa eta Kanpetzu aldeak lirateke egoera hau bizi izan dutenak.



Debekuak euskarari eta euskaldunek nozitutako irain eta debekuak Franco garaikoak direla uste du jende gehienak, baina egia esateko, euskararen aurkako jarrerak eta erabakiak oso aspalditik datoz, hona hemen adibide batzuk:

- 1682an Arabako Batzar Nagusietara bidalitako Artziniegako ordezkari edo prokuradoreak ez zekien erromantzea (hasierako gazteleraz) eta, ondorioz, aurreratzean eskualdeetako ordezkariak erromantzez egiteko gai izan behar zirela erabaki zuten Batzar Nagusietan; bestela 5000 marabediko isuna jarriko zitzaion ordezkariari.
- 1776an Gaztelako Erreinuak gazteleraz ez ziren liburuak inprimatzea debekatzeko agindua ezarri zuen.
- 1768an Carlos III.a erregeak irakaskuntza soilik gazteleraz izan zedila agindu zuen.

- 1794ko Iraultzaren ondoren Frantziako hizkuntza bakarra frantsesa izan behar zela erabaki zuten agintariek, euskara baztertzeko erabakiak eta planak egin zituzten Ipar Euskal Herrian.

- Azken hiru mendetan euskararen erabilpenaren aurkako tresna krudela erabili izan da: ESKOLAKO ERAZTUNA, umeen artetik eskutik eskura pasatzen zena. Ume batek euskaraz ari zela entzuten bazuen beste bat, hau salatu egiten zuten eta eraztuna jartzen pasatzen zion, azken honek beste bat salatu behar zuten eraztuna gainetik kentzeko. Eraztunarekin astea bukatzen zuenak kideen burlaz gain zigor fisikoa jasotzen zuten. Honi buruz idazle ere bazen Dulantziko Pablo Mendivilek lekuko zuzena utzi digu, honela idatzi baitzuen XVIII. mendean:

“ que mi lengua es la bascongada, y para obligarme a que la olvide como si fuera incompatible con aprender i saber la castellana, me condenan a recibir el maldito anillo si se me escapa una sola palabra de las que mamá con la leche, aunque diga Ama en lugar de Madre... ¿i si no parece el anillo? ¿i si para evitar ese paso, se oculta, o de una vez se hace pedazos i nadie lo saca? En tal caso, ai del último que lo tuvo! ¿i si nadie lo tuvo i lo dio el señor maestro? Todos serán azotados.”



- 1902an Alfontso XIII. Erregeak dekretua atera zuten, non gaztelera ez zen beste hizkuntza batean irakasten zuten maisu-maistrak zigortzeko agintzen zuten.
- 1936an Francok boterea hartuta euskara kalean ere debekatzen hasi ziren. Esaterako Lizarran “agur” esatea debekatzen zuten bandoa atera zuten militarrek.

Euskarak aurrerapen handia izan du XX. mendearen amaieratik aurrera, hizkuntza indarberitzeko borrokari esker: eskolan, unibertsitatean, idatzizko komunikabideetan, telebistan eta zineman sartu da. Baina hizkuntza hegemoniko oso indartsuak ditu jatorria duen eta hitz egiten den eremuan. Mundu mailako milioika hiztunekin, hala nola gaztelaniarekin eta frantsesarekin, partekatzen du eremu bera. Administrazioak eta herritarrek euskara babestu eta sustatzea ezinbestekoa izango da denbora iraungo badu.

Horrexegatik esan zuten Bernart Etxeparek duela 500 urte:

Euskara ialgi hadi mundura!

Bibliografia:

- *Euskara. Euskaldunon hizkuntza: Joseba Intxausti*
- *Arabako Euskal Ahotsak: Estibalitz Briñas / Javi Otsoa de Alda*

Esteka interesgarriak gehiago jakiteko:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskararen_historia
- <http://www.kondaira.net/eus/Euskara0001.html>

- <https://www.youtube.com/watch?v=CHC15WNtWq8&t=825s> (bideoa)
- <http://www.euskarajendea.eus/es/> (Bideoa)
- <https://www.youtube.com/watch?v=6gCF3koMp28> (Bideoa)